

4.2. Gaiaren lanketa

> Ipuin berri bat sortzen



- Nola idazten da ipuin bat?

• Sailkatu hasiera eta bukaera formak

Helburuak

- Ipuinen hasiera eta bukaera formak ezagutzea.
- Ipuinen hasiera eta bukaera formak ezberdintzea.
- Ipuin bat idatzi ahal izateko hainbat ideia eta kontzeptu bereganatzea.

Prozedura

- Ekintza egiteko bi modu daude: talde handian edo bikoteka.
- **Bikoteka egiten bada**, bikote bakoitzari "sailkatu hasiera eta bukaera formak" fitxak banatu.
- Umeek nahasian dauden formak antolatu eta hasierakoak edo bukaerakoak diren erabaki.
- Horretarako prestatuta dagoen orrialdean forma bakoitza dagokion laukian idatzi.
- Denen artean bikoteetan eginiko lana komentatu eta zuzendu beharrekoa zuzendu.
- **Talde handian egiten bada**, gelara bi kartulina handi eraman.
- Kartulina batean hasiera forma idatzi eta beste kartulinan bukaera formak.
- Ume guztien artean komentatu zeintzuk diren hasiera formak eta zeintzuk bukaera formak.
- Denen artean bi mural egin: hasiera formak alde batetik eta bukaera formak bestetik.
- Gelako paretetan itsatsi.